



Espedientearen kodea: 2024ZZ020002

Espedientearen gaia: Herriko eragileek Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten 2024ko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2024ko otsailaren 20an argitaratu ziren Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antola ditzaten 2024ko dirulaguntzak banatzeko deialdia eta oinarri-arau espezifikoak GAOn.

Dirulaguntza horietan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak.

Epe horretan, Oiartzungo Udalean 15 eskaera aurkeztu ziren.

Eskaera horiek aztertu eta ondoren, Gazteria eta kirol sailak egindako txostena ikusirik, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehena.- Txosten honen I. eranskinean jasotako taulan agertzen diren eskatzaileei bertan adieraziko dirulaguntzak ematea, kasuan kasu taula horretan jasotzen den ekitaldia edo jarduera berezia antolatzeko.

Bigarrena.- Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 12.982,45 euroko gastu onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko 1 0352.481.341.00.03 2024 (A-33/2024) zenbakidun partidaren kargura, eta "Ez-ohiko Kirol Jardueretako dirulaguntza" kontu-sailaren kontura finantziatuko da.

Hirugarrena.- Kasu bakoitzean emandako dirulaguntza bi epeetan ordainduko da: ordainketaren % 80a (10.385,64 €) ebazpenarekin batera eta gainerako % 20a (2.596,81 €) ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean justifikatu ondoren, beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen.

Laugarrena.- II. eranskinean jasotako dirulaguntza eskaerak ezestea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua

I. ERANSKINA

JARDUERA	ESKATZAILEA	DIRULAGUNTZA	1. ORDAINKETA (%80)	2. ORDAINKETA (%20)
EH PALA TXAPELKETA IREKIA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	950,00 €	760,00 €	190,00 €
XANISTEBAN XVII PALA TXAPELKETA SARIA	GIRIZIA KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	505,00 €	404,00 €	101,00 €
HERRIARTEKO TXAPELKETA	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	1.313,36 €	1.050,69 €	262,67 €
GAZTEENTZAKO PILOTA JARDUNALDIA	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	725,81 €	580,65 €	145,16 €
ESKUPILOTA JAIALDIA (20. URTEURRENA)	OIARPE PILOTA KIROL ELKARTEA	933,18 €	746,54 €	186,64 €
EUSKAL KOPA GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KK	1.365,21 €	1.092,17 €	273,04 €
OIARTZUNGO GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARITZA KK	800,00 €	640,00 €	160,00 €
URTXALLE SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	864,06 €	691,24 €	172,82 €
TXOST PALA SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	864,06 €	691,24 €	172,82 €
TXAPELKETA HERRIKOIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	967,74 €	774,19 €	193,55 €
VII. URKABEKO IGOERA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	350,00 €	280,00 €	70,00 €
INTXIXU TRAIL MENDI LASTERKETA	ZORROLA TRAIL KIROL KLUBA	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
PLATER TIRAKETA	SASTRAKA EHIZA ETA ARRANTZA KIROL ELKARTEA	518,43 €	414,75 €	103,69 €
GIPUZKOAKO KINTOPEKO TXAPELKETA	OIARTZUNGO IDIYAZALEAK KULTUR ETA KIROL ELKARTEA	864,06 €	691,24 €	172,81 €
HIRUKI GIMDANCE	HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	461,54 €	369,23 €	92,31 €
GUZTIRA		12.982,45 €	10.385,64 €	2.596,81 €

II. ERANSKINA

Ezetsitako eskaerak:

JARDUERA	ANTOLATZAILEA	ARRAZOIA
XLII IBILALDI NEURTUA	BIZARDIA KJKE	Epe z kanpo aurkeztu du eskaera.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZZ020002-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)